



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko urtarrilaren 24a

3. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, Bizikletaren plan zuzendaria prestatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, turismoa sustatzeko plan berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Arradako osasun etxearen egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Baluartearen zabalkundea egiteko argitalpena euskaraz kaleratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofia ospitaleko bosgarren solairua ez erabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, ezgaitasunak dituzten pertsonen arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzen deialdiaren ebazpenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, industriarako lurzorugabeziari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, etorkinei harrera egiteko programak gauzatzeko funtsak udalei banatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, administrazioaren esku dauden agiriak eskatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, ikerketa bekei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, drogazaleei laguntza emateko elkarrekin dauden hitzarmenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak Nafarroako Kutzaren eta beste entitate batzuen zenbat bilkuratan parte hartu duen jakitekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, suhiltzaileen parke zentral berri bat eraikitzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Nazioarteko futbol partida batek eragindako gastuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, burutzak betetzeko jarduketa planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, lurzoruak kokatzeko lehentasunei buruzko agiriak prestatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

- Galdera, Funesen planta bat ezartzeari eta Falcestik Funesera doan hustubidearen trazadurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren kabineteko buruak Kubara eginiko bidaiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Humanismo y Democracia Fundazioari diruz lagundutako proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Bizikletaren plan zuzendaria prestatzeari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Bizikletaren plan zuzendaria prestatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko ekainaren 20ko 65. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du bizikletaren plan zuzendariaren prestaketari buruz. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1. Zertan da Bizikletari buruzko plan zuzendaria?

Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroari esleitzeko tramitazio administratiboaren fasean dago.

2. Gobernuak noiz amaitu eta igorriko du Legebiltzarrera?

Plan zuzendariaren diseinu teorikoak bi fase aurreikusten dute; biak batera 18 hilabete baino

gehiago luzatuko dira. Horrenbestez, lanak ekitaldi honetako bigarren seihilekoan abiatuz gero, plana 2006ko bukaeran igorri ahal da Parlamentura.

3. Nafarroako Gobernuak parte hartu al du Iruñeko Udalaren bide gorrien plana taxutzen?

Nafarroako Gobernuak hartu du parte udalak xede horretarako antolatu dituen bileretan; honako bitartez, hain zuzen: Ingurumen Zuzendaritza Nagusia –Hiri Ingurumenaren Atala–, Garraio Zuzendaritza Nagusia –Garraioen Plangintza eta Araubide Juridikoaren Zerbitzua– eta Industria eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusia.

4. Nafarroako bizikletaren planaren eta Iruñeko bide gorrien planaren edukien arteko koordinaziorik aurreikusi al da?

Aurreikusita dago Nafarroako bizikletaren plan zuzendariaren proposamena prestatzen duen lantalde teknikoak hartu-emanak izatea Iruñeko bide gorrien planaren udal arduradunekin, plan horren edukiaren xehetasunak ezagutzeko eta, aurrera-go, Nafarroako bizikletaren plan zuzendariaren amaierako proposamenean txertatzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 27an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, turismoa sustatzeko plan berriari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak turismoa sustatzeko plan berriari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko ekainaren 13ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko uztailaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeak galdera egin du Foru Komunitateko turismoa sustatzeko planaren zenbait alderdiri buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Kultura eta Turismo Departamentuak, Nafarroko turismoa sustatzeko planaren barruan, publizitate kanpaina bat abiarazi du Nafarroako eskaintza egon dadin, modu jarraituan, komunikabide nagusietan eta aldizkari espezializatueta, gehigarrietan eta ale berezietan.

Aurtengo maiatzaren hasieran, nazio mailako zenbait hedabidetan horretarako diseinaturiko iragarkiak jartzen hasi zen, aipatu planean ezarritako strategiari, helburuei eta produktu turistikoiei erantzuna emanez.

Turismoa sustatzeko aipatu kanpaina presente egonen da nazio mailako egunkarietako turismoari buruzko ale berezietan eta gehigarrietan; besteak

beste, El País-en –astero, abendura bitarte, El Viajero gehigarrian– eta El Mundo-n –Viajes–. Berdin presente egonen da maila autonomikoko egunkarietan; besteak beste, La Vanguardian –Viajaredo El Periódico de Cataluña-n –Destinos y Gourmets–.

Iragarkiak sartzen ari dira, halaber, bidaiei buruzko aldizkari nagusietan; honakoetan, besteak beste: GEO, Nacional Geographic, Viajar, Ronda Iberia, Paradores, Viajeros, Paisajes desde el tren, Aire Libre, El mundo de los Pirineos, Grandes Espacios, Viajes y Vacaciones, De viajes, Turismo y Aventura.

GEO aldizkariari dagokionez, ale berezi bat argitaratu du Nafarroari buruz, bere ekimenez, bilduma monografiko baten barruan; hau da, Nafarroako Gobernuaren parte-hartze bakarra izan da bost iragarki txertatzea publizitate moduan.

Turismoa sustatzeko kanpainaren gastua Turismoaren Sustapenerako eta Irudi Turistikorako Zerbitzuaren “Publizitatea eta propaganda” izeneko A10002-A1200-2262-432100 kontusailaren kargura ordaindu da. Kontusail horrek 800.000 euro ditu aurreikusiak. Aurtengo maiatzaren 31n 613.122,56 euroko gastua zegoen eginik; ekainaren 28an, berriz, 705.227,38 euro zeuden gastatuak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 30ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Arradako osasun etxearen egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Arradako osasun etxearen egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko ekainaren 13ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko uztailaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Arradako osasun etxearen egoerari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

1., 2., 6., 7., 8. eta 9. atalei buruz, kontsultategi medikoei dagokienez, esan behar da kontsultategi medikoak eraikitzeke eta birmoldatzeko eskumenak kasuko udal edo kontzejuenak direla. Horixe ezartzen du Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen 34. artikulua eta Nafarroako osasun arloko Oinarrizko Laguntzako Egituren Erregelamendua onesten duen maiatzaren 30eko 148/1986 Foru Dekretuaren hamargarren xedapen gehigarriak.

Halaber, arau horrek berak ezartzen du kontsultategien kontserbatze eta mantentzea udal edo kontzejuen eskumena dela; kontserbatze eta mantentze gastuak udal edo kontzejuek ordainduko dituztela, horretarako gastuen eta dirusarreraren urteko aurrekontuan behar diren kopuruak jasoz; eta gastu horiek dagokion osasun administrazioak ordainduko dituela.

Arradako kontsultategi medikoa kontzeju horrena dela, eta, horrenbestez, haren eskumen eta ardurapekoak direla eraikina zaharberritzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko lanak.

Arradako Kontzejuak 2.600 euro gutxi gorabehera –2004an, 2.635,10 euro– jasotzen dituela urtero kontsultategiaren mantentze, kontserbatze eta funtzionamendu gastuak ordaintzeko.

3., 4. eta 5. atalei dagokienez, jakitera ematen dugu Arradako Kontzejuak 2002., 2003., 2004. eta 2005. urteetan dirulaguntza eskatu duela kontsultategia zaharberritzeko.

Aipatu araudiaren arabera, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duen ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeak ezarritakoari jarraikiz, Osasunbideak urtero onesten du herrietako kontsultategiak eraikitzeke edo zaharberritzeko dirulaguntzen deialdia.

Aipatu urteko deialdiaren oinarrietan azaltzen denez, balorazio batzordeak eskabideak aztertu eta dirulaguntzak emateko proposamena baloratu eta igorriko diola Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari-kudeatzaileari. Proposamen hori loteslea izanen da, 8/1997 Foru Legeari jarraikiz. Hona baloraziorako irizpideak: lehentasuna emanen zaio Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzari kontsultategien arloan; aurreproiektua, oroit-idazki tekniko baloratua edo/eta aurkezturiko aurrekontua bat etortzea laguntza medikoaren benetako beharrianekin; kontsultategiak laguntza ematen dien pertsonen kopurua; lokalen kokapena eta irisgarritasuna; eta aurkeztutako aurrekontua egin beharreko obrarako egokia izatea.

Azken ekitaldietan, Arradako Kontzejuak kontsultategi medikoa zaharberritzeko eskabideak aurkeztu ditu urteko deialdietan.

Balorazio batzordeak, deialdiko oinarrietan jasotako balorazio irizpideak kontuan hartuta, lehentasuna eman dio beste udal batzuei dirulaguntzak emateari.

8. eta 9. atalei buruz, osasun etxeei dagokienez, esan behar da eskumenak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarenak direla, eta guztiek dituztela suteen prebentziorako sistemak; hain zuzen ere, sistema horiei buruzko arauak osasun etxearen tamainaren eta eraiki zen urtearen arabera izaten dira.

Mantentze enpresek egiten dituzte prebentziorako aparailuen errebisioak.

Hona haien zerrenda:

Osasun etxea	Itzalgailuak	Postu finkoak	Suteei antzemateko zentrala
“Solchaga” larrialdiak	Bai	Bai	Bai
Agoitx	Bai	Bai	Bai

Osasun etxea	Itzalgailuak	Postu finkoak	Suteei antze-mateko zentrala	Osasun etxea	Itzalgailuak	Postu finkoak	Suteei antze-mateko zentrala
Alde Zaharra	Bai	Bai	Bai	Larraga	Bai	Bai	Bai
Allo	Bai	Bai		Larraintzar	Bai	Bai	Bai
Alsatsu	Bai	Bai	Bai	Leitza	Bai	Bai	
Antsoain	Bai	Bai		Lesaka	Bai	Bai	
Antzin-Ameskoa	Bai			Lizarra	Bai	Bai	Bai
Arrosadia	Bai	Bai	Bai	Lodosa	Bai		
Arrotxapea	Bai	Bai	Bai	Mendillorri	Bai	Bai	Bai
Atarrabia	Bai	Bai	Bai	Noain	Bai	Bai	Bai
Auritz	Bai	Bai	Bai	Orkoién	Bai	Bai	Bai
Azkoién	Bai		Bai	San Adrián	Bai		
Azpilagaña	Bai	Bai	Bai	San Jorge	Bai	Bai	Bai
Barañain	Bai			San Juan	Bai	Bai	Bai
Berriozar	Bai	Bai	Bai	Tafalla	Bai	Bai	Bai
Bigarren Zabalgunea	Bai	Bai	Bai	Tutera			
Buñuel	Bai		Bai	mendebaldekoa	Bai	Bai	Bai
Burlata	Bai	Bai	Bai	Tuterako ekialdekoa.	Bai	Bai	Bai
Cascante	Bai	Bai	Bai	Txantrea	Bai	Bai	Bai
Cientruénigo	Bai		Bai	Uharte	Bai	Bai	
Conde Oliveto eraikina	Bai	Bai	Bai	Urantzia	Bai		
Corella	Bai	Bai	Bai	Valtierra	Bai		Bai
Doneztebe	Bai	Bai	Bai	Viana	Bai		
Elizondo	Bai		Bai	Villatuerta	Bai	Bai	
Ermitagaña	Bai	Bai	Bai	Zangoza	Bai	Bai	Bai
Erriberrí	Bai	Bai	Bai	Zarrakaztelu	Bai		
Etxabakoitz	Bai	Bai		Zizur Nagusia	Bai	Bai	Bai
Etxarri Aranatz	Bai	Bai	Bai				
Ezkaroze	Bai	Bai	Bai				
Gares	Bai	Bai	Bai				
Irurtzun	Bai	Bai	Bai				
Iturrama	Bai	Bai	Bai				
Izaba	Bai						

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 30ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Baluartearen zabalkundea egiteko argitalpena euskaraz kalera- tzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Baluartearen zabalkundea egiteko argitalpena euskaraz kaleratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko ekainaren 13ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko uztailaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak galdera egin du Baluarte-Biltzar jauregi eta auditorioa sustatzeko egin den argitalpenarekin loturiko zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Baluarte-Biltzar jauregi eta auditorioaren eraikinak bi helburu ditu: bata guztiz kulturala, alegia herritar guztiei zuzendutako kultur programak programatu eta eszenaratzea, eta bestea, izenak berak ongi adierazten duen bezala, biltzarrekin guztiz lotuta dagoena, hau da, era askotako erakunde, entitate eta enpresek sustaturiko ospakizun, bilkura, erakustaldi, azoka eta jarduera zehatzago batzuk egiteko egoitza izatea.

Helburu bikoitz hori betetzeko, eta baterako eta besterako publiko hartzailea oso ezberdina denez, eskaintzen diren zerbitzuak sustatzeko lerro eta irizpide ezberdinak behar dira.

Aipatzen den argitalpenak tresna egokia izan nahi du sustatzaileei ezagutzera emateko Baluarteak eskaintzen dituen bereizgarriak eta aukerak. Horrexegatik sartu dira katalogoan, eranskin gisa, eraikinaren eremu ezberdinei buruzko fitxa zehatzak, sustatzaileek beren beharretarako egokiak diren eremuak errazago hautatu eta egokitu ditzaten.

Nazio mailako biltzar eta bilkuren merkatua lehenasunez kotzat jotzen dugu, zeren eta ohikoa baita ospakizun horiek egiteko hiriak aldatzen joatea. Horregatik, Palacio de Congresos y Auditorio de Pamplona Baluarte, S.A.k, bere eskumenen esparruan, erabaki du katalogo hori, lehenbizi, gazteleraz argitaratzea. Hori guztia ez da oztipoa izanen, behin merkatu hori asetzen denean, katalogoa beste hizkuntza batzuetan ere argitaratzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 30ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Tuterako Reina Sofía ospitaleko bosgarren solairua ez erabiltze- ri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak Tuterako Reina Sofía ospitaleko bosgarren solairua ez erabiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko ekainaren 13ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko uztailaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak galdera egin du Tuterako Reina Sofía Ospitaleko bosgarren solairua ez erabiltzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

1.- Tuterako Reina Sofía Ospitaleko 5. eta 6. solairuak ezer ere gabe daude eraiki zirenetik;

horrenbestez, ezin dira erabili alde zuretik egokitzeko lanak egin gabe.

Ospitaleratze-parametroen arabera, ez dago eta ez da sekula egon solairu horiek egokitzeko beharrik ospitaleratze-ohere gehiago jartzeko. Are gehiago, osasun sistemen egungo joerak ospitaleratze tradizionalaz bestelako bideak erabiltzea dakar: etxeko ospitaleratzea, kirurgia handi anbulatorioa eta abar.

2.- Osasun Departamentuak erabaki du Tuterako Reina Sofía Ospitaleko 5. eta 6. solairuak lagatzea, Hezkuntza Departamentuak egokitzeko lanak egin ondoren, NUPek Fisioterapia titulazioko eskolak eman ditzan heldu den ikasturtean, Tuterako Unibertsitate Campuseko eraikinak bukatzen ez diren bitartean.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 30ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, ezgaitasunak dituzten pertsonen arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzen deialdiaren ebazpenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Egaña Descarga andreak ezgaitasunak dituzten pertsonen arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzen deialdiaren ebazpenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko ekainaren 13ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko uztailaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak galdera egin du ezgaituekin lan egiten duten elkarreentzako dirulaguntzen ordainketari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna.

1. eta 2. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak ebatzi al du dirulaguntzen deialdia? Ebatzi baldin badu, ebazpenaren eta haren eranskin guztien kopia bat nahi dut. Ebazpena oraindik eman ez bada, zer arrazoi

daude berandutzeko, batik bat kontuan hartuta deialdiaren 9.2. oinarrian xedatutakoa?

Pertsona ezgaituen arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko entitateentzako 2005. urterako dirulaguntzen deialdia abenduaren 24ko 190/2004 Foru Aginduaren bidez onetsi zen –2004ko abenduaren 31ko 157. NAO n argitaratu zen–; hasierako kreditua 3.000.497 eurokoa da, eta hari, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren maiatzaren 16ko 68/2005 Foru Aginduaren bitartez –2005eko maiatzaren 27ko 63. NAO n argitaratu zen–, 238.000 euro gehitu zitzaizkion. Guztira, horrenbestez, 3.238.497 euroko kopurura iritsi zen deialdirako.

Behin foru agindu hori argitaratu zenean, dirulaguntzetarako deialdia erabaki zen, hain zuzen ere Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailearen ekainaren 3ko 2370/2005 Ebazpenaren bitartez; haren bitartez, 28 elkarteren 95 programetarako dirulaguntzak

eman dira, guztira 3.238.486,84 euro egiten dutenak.

Ekainaren 8an, entitate guztiek 60.000 euroa arteko lehen ordainketa bat jaso zuten. Horrenbestez, kopuru hori baino dirulaguntza txikiagoa jaso behar zuten guztiek, hain zuzen ere entitate horietako gehienek, dirulaguntzaren ehuneko ehun jaso zuten. Gainerakoak, 60.000 euro baino diru kopuru handiagoa jaso behar zutenak, aginduzkoa den bezala, lehen ordainketa hori justifikatzen doazen neurrian, kopuru osoa jaso arteko ordainketak jasotzen joanen dira.

Gaur egun, 1.769.978,28 euro ordaindurik daude, hau da, dirulaguntza osoaren ehuneko 55. 1.468.508,55 euro geratzen dira ordaintzeko, dirulaguntzako kopuru osoaren ehuneko 45; kopuru hori aurreko lerrokadan adierazitako moduan ordainduko da.

Ordaintzeko gelditu den kopurua 60.000 euro baino gehiago jasoko dituzten zortzi entitateri emaniko dirulaguntzei dagokie. Hauexek dira:

ENTITATEA	Emandakoa	Ordaindutakoa	Ordaindutakoa/ Emandakoa, ehunekotan	Ordaintzeko dagoena	Ordaintzeko dagoena/ Emandakoa, ehunekotan
ADACEN - 2005eko DIRULAGUNTZA	152.730,04	60.000,00	% 39	92.730,04	% 61
ANASAPS - 2005eko DIRULAGUNTZA	659.743,51	300000	% 45	359.743,51	% 55
ANFAS - 2005eko DIRULAGUNTZA	579.388,92	300000	% 52	279.388,92	% 48
ATENA - 2005eko DIRULAGUNTZA	61.872,90	60.000,00	% 97	1.872,90	% 3
COORDI.DISMI.FÍSICOS - 2005eko DIRULAGUNTZA	65.978,85	60.000,00	% 91	5.978,85	% 9
ELKARKIDE - 2005eko DIRULAGUNTZA	757.402,44	360000	% 48	397.402,44	% 52
HOGAR ZOE - 2005eko DIRULAGUNTZA	90.172,70	60.000,00	% 67	30.172,70	% 33
JAVIER EGOITZA - 2005eko DIRULAGUNTZA	541.219,19	240000	% 44	301.219,19	% 56
GUZTIRA	2.908.508,55	1.440.000,00	% 50	1.468.508,55	% 50

Eskatutako ebazpenaren kopia eranskin gisa jarri dugu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 28an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, industriarako lurzoru gabeziari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak industriarako lurzoru gabeziari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko maiatzaren 23ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko uztailaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak galdera egin du lurzoru industrialari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

Aldez aurretikoak:

Benetan harrigarriak dira parlamentu-ekimen honen zioen azalpenean jasotako baieztapen gehienak; izan ere, ez datoz bat inolaz ere bat foru erkidegoaren egungo errealitatearekin, are gutxiago joan den apirilaren 28an igorritako erantzunean emandako informazio ugariarekin ere.

Uste izatekoa da, ekimena proposatu duen taldeak ez duela dokumentu hori guztiz irakurri. Izan ere, dokumentu horren zati batzuk berriz emanen ditugu, lurzoru industrialerako eremu berriei dago kienez, lurzoru industrial horren bolumenaren garrantzia berriz neurtu ahal izan dadin. Lurzoru hori guztia Nafarroako Gobernuaren zuzeneko ekimena da, legegintzaldi honetan zehar gauzatu-takoa, eta udalekin batera lan eginez tramitatzen ari da.

Eskualde mailan legegintzaldi honetan egiteko asmo ditugun jarduerak hauexek dira:

Jarduketa	Azal. gordina (m ²)
1 Lizarra aldeko jarduera ekonomikoetako eremua (Los Arcos)	456.000
2 Tuterako jarduera ekonomikoetako eremua (1. fasea)	600.000
3 Comarca-3ko jarduera ekonomikoetako eremua (Elortzibar)	2.100.000
4 Getzeko Ordokiko jarduera ekonomikoetako eremua	417.000
5 La Navari gehitutako (Tafalla-Erriberri) jarduera ekonomikoetako eremua	200.000
6 Rocaforteri (Zangoza) gehitutako jarduera ekonomikoetako eremua	210.000
7 Altsasu-Urdiango jarduera ekonomikoetako eremua	900.000

Aurrekoari udal jarduerak gehitu behar zaizkio; haien bideragarritasuna aztertu ondoren eta kasuan kasuko udalak hartutako konpromisoekin,

Nasuinsak eta udal ekimenak osotara edo zati batean kudeatuko ditu:

Jarduketa	Azal. gordina (m ²)
7 Cadreitako jarduera ekonomikoetako eremua	122.000
8 Faltzesko jarduera ekonomikoetako eremua	80.000
9 Agoizko jarduera ekonomikoetako eremua	274.000
10 Lizarrako jarduera ekonomikoetako eremua	400.000

Lanak gauzatzeko aurreikusirik dauden jarduketan kostua 100 milioi eurokoa izanen dela aurreikusten da, eta ezin da gehiago zehaztu lurren kostuak ezagutu eta urbanizazio lanak kontratatu arte.

Oraingoz, Nasuinsak honako udal edo toki industrialde hauek sustatu ditu, kasuan kasuko udalekin hitzarmenak izenpetuz:

– Arguedas-Valtierra, Cabanillas, Gares, Izaba, Mérida, Mendabia, Milagro eta Ultzama.

Era berean, protokoloak formalizatu dira edo aurretiko azterlanak edo/eta proiektuak egiten ari dira honako udal hauekin:

– Ablitas, Antzin, Areso, Artaxoa, Basaburua, Baztan, Burgi, Cascante, Cortes, Deikaztelu, Elizagorria, Erroibar, Funes, Irunberri, Larraun, Leitza, Mendigorria, Monteagudo, Olazti, Tafalla, Urrobiko Partzuergoa eta Zirauki

Horrenbestez, argi dago Nafarroako Gobernuak plangintza zehatza egin duela, legegintzaldi honetan lurzoru industrialari buruz hartutako konpromisoa betetzeko.

1. galdera

Nafarroako Gobernuak ongi daki industrian eginiko inbertsioa, azken urteetan, Foru Komunitateko jarduera ekonomikoaren, enplegu-sorreraren eta aberastasunaren motor garrantzitsuetako bat izan dela, erabilitako adierazgarrietan demostratu den bezala.

Inbertsioaren bolumenari dagokionez, inbertsiorako eta enplegurako laguntzen urteko deialdi- enpresek eginiko harrera ona neurgarri egokia da Nafarroako sektore industrialaren eboluzioa ezagutzeko.

Foru erkidegoan, 1978ko urtarrilaren 1etik hona laguntzen araubide bat egon da, etenik gabe, eta araubide hori urteetan zehar gure enpresen ehunaren beharrezanez egokitzen joan da.

Behar diren zerga-pizgarriak alde batera utzita, foru erkidegoan gaur egun indarra duen laguntzen araubidea funtsean Nafarroan ezarri nahi diren enpresa industrial guztiei zuzenduta dago, bai eta ezarrita dauden enpresen ekoizpenerako tresnak modernizatzeari ere. Eta laguntza horiek bai Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak, bai Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak kudeatzen dituzte, azken horrek nekazaritzako elikagai industriei dagokienez.

Xede horrekin, Nafarroako Gobernuak honako laguntzak ematen ditu: inbertsiorako eta enplegurako dirulaguntzak, maileguen eta aktibo finkoen leasing eragiketen interesetarako hobariak eta beste pizgarri batzuk. Inbertsiorako eta enplegurako dirulaguntzen xedea da ekoizpenerako inbertsioa indarberritzearen alde egitea, lanpostu berriak sortzea eta daudenak mantentzea. Interesen hobariak hartzeko laguntzen oinarria enpresa industrialaren ekoizpenerako inbertsioa sustatu nahi dute.

Gaur arte, erkidegoko enpresek erantzun positiboa eman diete Nafarroako Gobernuak eskaintzen dituen laguntzei. Foru gobernua urtero ahalgin ekonomiko handi bat egiten du foru erkidegoan dauden inbertitzaileek esparru egokia topa dezaten beren enpresa-ekimenak aurrera eramateko eta finkatzeko. Behar diren baliabideak eskaintzen jarraitzen dugu industria-ehunak gure eskualdea hazteko motorretako bat izaten jarraitu dezan.

Inbertsio eta enplegurako laguntzen bilakaera

URTEA	ESPEDIENTEAK	DIRULAGUNTZAK	INBERTSIOAK	%
2000	301	44.989.009	280.696.810	16
2001	196	37.363.814	222.284.184	16,8
2002	335	51.658.807	304.683.727	17
2003	182	47.209.637	383.070.493	12,32
2004	242	39.952.623	434.122.984	9,20
GUZTIRA	1.256	221.173.890	1.624.858.198	

Horri dagokionez, 2000tik 1.624 milioi euroko inbertsioa egin duten 1.256 enpresek 221,1 milioi euroko dirulaguntzak jaso dituzte. Kontuan hartu behar da 2004an enpresa-inbertsioa garai osoko handiena izan zela, 434 milioi euroko inbertsioak egin baitziren.

Enpleguaren bilakaerari buruzko datu homologatuak hartzen baditugu, eta horretarako Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI) da erreferentzia egokia, erraz egiaztatuko dugu Nafarroako industria dela foru erkidegoan enplegua sortzeko motor nagusia.

Egoera hori argi agertu zen joan den ekitaldi ekonomikoan; izan ere, hartan industriaren sektoreak Nafarroan sorturiko enplegu berrien ehuneko 75 sortu zuen. 2004an guztira sorturiko enplegu berriak 7.800 izan ziren; horietatik, 5.875 –ehuneko 75– industriaren sektorekoak ziren, 500 erakuntzaren sektorekoak, eta 1.750 zerbitzuen sektorekoak.

Kanpoko txosten independenteek ere, esate baterako “Cuadernos de Información Económica” aldizkariak, berriki Funcasek –Aurrezki Kutxen Fundazioak– argitaratuak, Estatuko dinamikoen artean jartzen dute Nafarroako industriaren sektorea. Industriaren sektorearen 2004ko hazkundeari dagokionez, ehuneko 2,9ko tasarekin, Espainiako Espainiako erregioen buruan jarri zen, eta Asturiasek, ehuneko 3,8rekin, eta Murtzia, ehuneko 3,3rekin, baizik ez zuten gainditu. Industriaren sektoreko jardueraren hazkundearen batez bestekoa ehuneko 2,3 izan zen.

2. galdera

Garrantzi ertaineko enpresa bat garrantzi ertaineko lur sail batean instalatuko litzateke, bere jarduera gauzatu nahi duen eremuan, Nafarroako

industria-lurzorua geografikoki banatuta dauden zazpi eremuen barruan, betiere kasuan kasu beharrezkoak eta exijitzekoak diren lege-betekizunak betetzen baditu.

3. galdera

Departamentu honetan ez dago dokumenturik non gure eragile sozialek inongo kalkulurik erakutsiko duten hurrengo bi urteetan 3.000 enplegu galtzeari buruz.

Nafarroako Gobernuak jakin du azken urteetan Nafarroa osoan lurzoru industrialaren politikaren arloan garatu duen politikak bidea eman duela inbertsio industrialeko bolumen handiari eusteko, aurreko erantzunetako datuek agertzen duten bezala.

Industriaren sektoreko enplegu-galera dela-eta inongo oinarri objektiborik gabe egin diren baieztapenen aurrean, esan behar dugu enpleguak Nafarroako ekonomian izan duen bilakaerak baieztatzen duela lan markatuaren martxa egokia. Aurrekoa dela eta, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren –BAI– bilakaera positiboa da. 1997tik 2004ra bitarte 60.500 pertsonatetik 77.200 pertsonatara igo zen Nafarroako industrian lan egiten ari zen populazioa; horrek 16.700 lanposturen gorakada adierazten du; hau da, ehuneko 28ko igoera.

Etorkizunari dagokionez, III. Enplegu Planaren sinatzaileek eginiko kalkuluaren arabera, 2007an enplegu beteak lortuko da, ehuneko 68ko tasarekin.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 9an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, etorkinei harrera egiteko programak gauzatzeko funtsak udalei banatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak etorkinei harrera egiteko programak gauzatzeko funtsak udalei banatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko ekainaren 13ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko uztailaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du etorkinei harrera egiteko programak gauzatzeko funtsak udalei banatzeari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

Duela gutxi egunkarietan agertu denez, Nafarroak 1.188.109,10 euro jasoko ditu, udalek etorkinei harrera egiteko eta gizarteratzeko programak gauzatzeko egiten duten ahalegina ordaintzeko. Honakoa jakin nahi dugu.

1.- Gobernuak zer irizpide ezarriko dituen Estatu Gobernuak emandako kopuru hori udalen artean banatzeko.

Aldez aurretiko informazio gisa, esan behar da Nafarroako Gobernuak, oraingoan Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak eta Gizarte Ongizateko zuzendari nagusiak ordezkaturik, joan den ekainaren 1ean ezagutu zuela albistea, Immigrazioaren Integrazioarako Zuzendaritza Nagusiko –DGII– ordezkariekin izaniko bileran; hartan, gobernu zentralak aipatu kopurua banatzeko ezarritako tresnaren berri eman zitzaion Nafarroako ordezkariari; hain zuzen ere, Lan eta Gizarte Gaien Ministerioak –Immigrazioarako eta Emigrazioarako Estatu Idazkaritza– eta kasuan kasuko autonomia erkidegoak sinaturiko hitzarmena, non garatu beharreko ekintza plana ere sartuko baita. Planaren betetzea autonomia erkidegoko kasuko erakundeen eta, horien barruan, etorkinak dituzten udalen esku geratuko da.

Autonomia erkidego bakoitzak jaso beharreko kopuruak bi multzo handitan banatzen dira: hezkuntza sistemaren indartzea –gutzizkoaren ehu-

neko 40– eta harrera egitea eta integrazioa –hartatik toki entitateek ehuneko 50 jasoko dute–. Ikusita Nafarroari bi multzoetako bigarrenean baizik ez zaiola kopururik esleitu, ministerioak ezarri du udal politiketan jarri beharreko kopurua ehuneko 90 izanen dela.

Immigrazioaren Integrazioarako Zuzendaritza Nagusiak uztaila bukatu baino lehen gauzatu nahi du hitzarmena, eta hura sinatzeko, ezinbestekoa da gutxienez ere ondoko atalak jasoko dituen ekintza plan bat ezartzea: ekintza planaren testuingurua, autonomia erkidegoaren ezaugarriak; Nafarroako immigrazioaren errealitateari buruzko diagnosia; autonomia erkidegoaren ekintza planeko proiektuaren helburuak; ardatzak, neurriak eta jarduketak –ministerioak diseinatuak eta neurri handi batean gure erkidegoko planarekin bat datozenak; udalekin batera gauzatu beharreko jarduketak; oharrak eta eranskinak.

Ikusita zer denbora gutxi dagoen, gaur egun ekintza planaren oinarria izanen den txostena prestatzen ari gara, bertan sartzeko toki entiteekin gauzatu beharreko ekimenak direla eta hartu dituzten edo hartu behar dituzten neurriak. Horretarako, oinarrizko gizarte zerbitzu guztiei eskatu zaie behar den informazio guztia, jarduketak ministerioak eskatutako ekintza planean sartzeko, azpimarra jarri oinarrizko gizarte zerbitzu horiek indartzeko aukeran, haietan dauden etorkinen presentzia nabarmena dela eta.

Ministerioak toki entitateei eskatu die gutxienez ere ehuneko 30 jar dezatela gastua elkarrekin finantzatzeko; gauden egunetan gaudela, ordea, toki entitate gehienetan gastuen aurrekontua banatuta daude, eta aukera gutxi dauzkate aurrekontua handitzeko. Hori dela eta, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak immigrazioa dela eta toki entitateekin aurrera eramandako jarduketa guztiak sartuko dira ekintza planean, ekarpenaren ehuneko 30 horren egiaztagiri gisa balio dezan jarduerak egin nahi bai baina aurrekontuetan dirurik ez duten entitateentzat.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak ekintza planean sartu nahi ditu udaletan eta udalek aurrera eramandako jarduketa guztiak, betiere haien berri igorri gero zirriborroa ministeriora igorri baino lehen; izan ere, ez dago aukerarik hain denbora tarte laburrean estrategia berriak diseinatzeko. Jarduketa gehiegi egon eta banaketarako iriz-

pide batzuk jarri behar izanez gero, erroldako 2004ko urtarrilaren 1eko datuak ustiatu dira, garapen bidean dauden herrialdeetatik etorritako atzeritarren kopurua zenbatesteko.

2. Udalek noiz jasoko dute kopuru hori?

Aurreko galderan emandako informazioan egi-azta daitekeen bezala, galdera honen erantzuna nahitaez baldintzaturik egon daiteke alde aurretik ezin iragarri daitezkeen inguruabarrengatik. Kudeaketa sistemak exijitzen du, lehen adierazi bezala, autonomia erkidegoko gobernuak ekintza plana eta hitzarmenaren zirriborroa prestatzea eta haiek uztailaren hasieran ministeriora igortzea. Egin beharreko aldaketak alde batera utzita eta ministerioak haiek onartzen dituen ala ez alde batera utzita, Nafarroako Gobernuak, nahitaez, gobernu-erabaki batez onetsi behar du hitzarmenaren sinadura. Aurrerago, behin sinatu ondoren, jakin beharko da ministerioak transferentzia nola egingen duen, eta behin hura ezagututa Nafarroako Gobernuaren eta kasuan kasuko toki entitatearen

arteko akordio-eredu bat prestatu, hitzarmenean ezarritako kopuruak transferitze aldera.

3.- Nork kudeatuko ditu funts horiek, etorkinekin lan egiten duten elkarteek edota udalek?

Nafarroako Gobernuak ekintza planean ezarritako kopuruak transferitzeko prozedura bat prestatuko du, eta ministerioak kontrakoa esan ezean, gastuaren kudeaketa eta justifikazioa kontrolatzeko sistema bat ezarriko du. Toki entitate bakoitzak kudeatuko ditu baliabideak, egokien jotzen duen moduan –zuzeneko edo zeharkako kudeaketa entitateekin sinaturiko kontratu edo hitzarmenen bitartez–.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 30ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, administrazioaren esku dauden agiriak eskatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak administrazioaren esku dauden agiriak eskatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko ekainaren 13ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko uztailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du kasuan kasuko administrazioak bere esku dituen agiriak ez aurkezteko herritarrek duten eskubideari buruz, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiaren martxoaren 23ko 232/2005 eta 233/2005 ebazpenen bidez onetsitako deialdiak direla eta. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 35 f) artikulua dio herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk. Xedapen hori abuztuaren 5eko 1778/1994 Errege Dekretuaz garatu zen; haren bidez, 30/1992 Legea egokitu zen baimenak eman, aldatu eta bertan behera uzteko prozeduren gaineko arauetara. Hain zuzen ere, bigarren artikuluan honakoa dio:

“Aplikatzekoak diren arauen arabera interesdunei exijitzen zaizkien agiriak jada diharduen administrazioaren edozein organoren esku daudenean, eskatzaileek Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen 30/1992 Legeko 35 artikuluko f) letran (RCL 1992, 2512, 2775 eta RCL 1993, 246) ezarritakoaren arabera jokatu ahalko dute, agerraraziz agiriak aurkeztu ziren eguna eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren, edo, kasua bada, noiz eta zein organok edo bulegok eman zituen, betiere agiriak aurkeztu zireneko prozedura bukatu zenetik bost urte baino gehiago iragan ez badira.”

Bere aldetik, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeak, 9.4 artikuluan honakoa dio: "...herritarrek eskubidea dute... jadanik foru administrazioaren esku dauden agiriak ez aurkezteko. Horretarako, herritarrek agiria dagoen espedientea identifikatu ahal izanen dute, eta organo eskudunek ere eskatu ahal izanen diete interesdunei hori egin dezaten."

Arau horiek ikusirik eta kontuan hartuta zerbitzu-orria aurkeztu ez baina epe barruan agiria zein espedientetan zegoen adierazi zuten interesdunei zerbitzu-orri hori baloratu zitzaie, gure iritziz aplikatzekoak diren legezko arauak bete egin dira.

233/2005 Ebazpenaren kasuan, "II. eranskina: Merezimenduen Baremoa" izenburukoan, ezartzen da Giza Baliabideen Zerbitzuak ofizioz gehituko dituela atal horri dagozkion merezimenduak.

Eta hala egin da hala merezimenduetarako nola baldintzetarako.

232/2005 Ebazpenean, espezialitateen deialdi batenez eta hori kreditatzeko agirien tipologia anitzaenez, komenigarria iruditu zitzaigun eskatzea, deialdi horretarako soilik, epe bat zabal zedila izangaiak bere zerbitzu-orriko agiriak aurkez zitzaizkan.

Izangaiaren zerbitzu-orriak lanpostuen alderdi berariazko ugari ez ditu biltzen; hauek esate baterako:

- Beste administrazio batzuetan emaniko zerbitzuak.

- Irakaskuntza pribatuan edo itunduan emaniko zerbitzuak.

- Zuzeneko irakaskuntzan aritu izana haur hezkuntzan, nahiz eta destinoa lehen hezkuntzan eduki, edo bi etapetan batera aritu izan.

- Zuzeneko irakaskuntzan aritu izana teknologiaren arloan, nahiz eta destinoa eduki LHko espezialitatearen batean, edo espezialitatea partekatuta, irakaskuntza ertainen erreformaren barruan izanez gero.

- Teknologia berrietako aholkularien kasuan: teknologia berrien arloko irakaskuntza esperientziari edo prestakuntzari buruzko ziurtagiriak, titulazioak edo egiaztagiriak.

- Bestelako merezimenduak:

Dokumentazioa horrela jasotzeak erraztuko luke izangaiari baldintza gisa eskatzen zitzaizkion ziurtagiriak edo tituluak berrikustea eta, agian, haiek eskatzea ere bai.

Aipatu deialdiei emanen zaien interpretazioari eta aplikazioari dagokienez, betiere 232/2005 Ebazpenaren interpretazioaren kasuan, zerbitzu-orria hartu dezakegu aintzat baldintzei nahiz merezimenduei dagokienez.

Agiriak epez kanpo gehituz gero espedienteari, baldintzak kreditatzeko agiri gisa hartzen badira, administrazioak, behin-behineko zerrendak argitaratu eta izangaiari jakinarazi eta ondoren, 10 egun naturaleko epea izanen du huts-egitea zuzentzeko.

Agiriak espedienteari epez kanpo gehituz gero, merezimenduen kreditatze gisa hartu daitezzen, ez dira halakotzat hartuko baremazioari begira.

Beren zerbitzu-orria aurkeztu ez baina epe barruan agiria zein espedientetan eta, kasua bazen, zein zerbitzutan zegoen adierazi zuten izangaien kasuan, zerbitzu-orria baloratu egingen da bai baldintzei dagokien atalean, bai merezimenduei dagokien atalean ere.

232/2005 Ebazpenaren beraren kasuan, eta izangaiak zerbitzu-orria epez kanpo aurkeztu badute, atala edo erreferentzia zerbitzua adierazi gabe, hura baldintza gisa baloratuko zaie, baina ez merezimenduetarako.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko uztailaren 4an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, ikerketa bekei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak ikerketa bekei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko ekainaren 13ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko uztailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du ikerketa bekei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuak, haren menpeko erakundeek, merkataritza enpresek eta abarrek eginitako deialdien ondorioz ikerketa beka jasotzen dituzten pertsonetatik, zenbatek dute Gizarte Segurantzaren estaldura?

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuan gaur egun lau pertsona daude Nafarroako Gobernuaren prestakuntza beka hartzen dituztenak: horietako hiru Gizarte Ongizatearen Zuzendaritza Nagusian eta bat Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuan.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan prestakuntzarako beka emateko araubide orokorra ezarri zuzen apirilaren 19ko 172/2004 Foru Dekretuari jarraituz eman ziren beka horiek, betiere behar den deialdia egin ondoren.

Aipatu foru dekretuak, Nafarroako Foru Komunitateak ematen dituen prestakuntza beka guztietan aplikatzekoa denak, baina ez ikerketa beketan –horiek ikerketa bekadunaren estatutua onetsi zuen urriaren 24ko 1326/2003 Errege Dekretuaz aratu ziren–, ez du aurreikusten beka horiek jasotzen dituzten pertsonen Gizarte Segurantzaren alta eman behar zaienik, ikerketa bekadunekin egiten denaz bestera, halakoei alta eman behar baitzaie Gizarte Segurantzari.

Horrenbestez, foru dekretu horretan eta kasuko deialdian xedatuari jarraituz, horietako bakarra ere ez dago Gizarte Segurantzaren alta emanik, presta-

kuntza beka hartzen dituztelako, eta ez ikerketa beka.

2. Nafarroako Gobernuak, haren menpeko erakundeek, merkataritza enpresek eta abarrek eginitako deialdien ondorioz ikerketa beka jasotzen dituzten pertsonetatik, zenbatek dituzte aseguru pribatuak?

Aipatu 172/2004 Errege Dekretuko 21. artikulua aurreikusten du bekadun guztientzat aseguru poliza bat egin daitekeela, beharrezkotzat jotzen bada. Aipatu deialdietan ez da beharrezkotzat jo horrelakorik egitea eta, horrenbestez, ez da polizarik egin.

3. Nolakoak dira aseguru pribatu horiek eta zenbateko kostua du Nafarroako Gobernuarentzat aseguru pribatu horiek ordaintzeak?

Adierazitakoa kontuan harturik, ez da beharrezkoa galdera horri erantzutea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 29an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Hezkuntza kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren ikerketa beka jasotzen dituzten pertsonen Gizarte Segurantzari edo bestelako aseguru pribatuei buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Hezkuntza Departamentuaren Ikerketa eta Garapenaren (I+G) Planeko prestakuntzarako laguntzen urteko deialdiak modu ezberdinetako hiru deialdi biltzen ditu batera. Honakoak dira:

I. deialdia.- Doktoratu aurreko laguntzak.

Deialdi honek bi programa hartzen ditu:

– I. programa. Doktorego-ikastaroak egiteko laguntzen programa. Programa honek bi modalitate biltzen ditu:

1. modalitatea. Lehenbiziko urteari edo irakas-kuntza aldiari dagozkion ikastaroak egiteko laguntzak. Ikasturte bat. Zenbatekoa 4.000 eurokoa da pertsona eta ikastaro bakoitzeko.

2. modalitatea. Bigarren urteari edo ikerketa aldiari dagozkion ikastaroak egiteko laguntzak. Ikasturte bat. Zenbatekoa 4.000 eurokoa da pertsona eta ikastaro bakoitzeko.

– 2. programa. Doktorego-tesia egiteko eta doktore titulua eskuratzeko laguntzak. Hiru urte natural bitarte. Zenbatekoa 13.200 eurokoa da pertsona eta urte bakoitzeko.

II. deialdia.- Doktoreen ikerketarako gaitasuna hobetzeko jarduerak egiteko doktoratu ondoko laguntzen programa. 6 eta 24 hilabete bitarte. Zenbatekoa: 1.300 eta 1.600 euro bitarte pertsona eta hilabete bakoitzeko.

III. deialdia.- Nafarroarentzat interesa duten ikerketa proiektuak egiteko dirulaguntzak. Unibertsitateetarako eta irabazi asmorik ez duten beste ikerketa-erakundeetarako laguntzak. Urtebeteko edo bi urteko iraupena. Zenbatekoa 15.000 eurokoa da proiektu eta urte bakoitzeko.

III. deialdiak berariaz aipatzen ditu diruz ezin laguntzekoak diren kontzeptu gisa langileen soldatak, ordainsariak eta eskersariak, bai eta bekak ere.

Hezkuntza Departamentuaren laguntzen deialdiak ez dira inskribatu urriaren 24ko 1326/2003 Errege Dekretuak sorturiko erregistroan, zeren eta departamentua ez baita ikerketa erakunde publiko bat, ez da unibertsitate bat, ez ditu bekak ematen ikertzaile gazteek gara ditzaten departamentuak berak edo gobernuko beste departamentu batzuek proposaturiko edo sustaturiko proiektuak, ez da erakunde bat tesi baten edo ikerketa baten lanketa gidatuko duten irakasle tutoreak dauzkana. Horrenbestez, emandako laguntzetan ez da gizarte segurantzarik sartzen.

Aseguru medikoei dagokienez, doktoratu aurreko laguntzen onuradunak –I. deialdia– hirugarren zikloko ikasleak dira; hori dela eta, aseguru bat badute ikasketak egiten dituzten unibertsitateko ikasleak diren aldetik. Doktoratu ondoko laguntzen hartzaileek –II. deialdia– beren kontura eta

laguntzak dirauen denborarako, istripuetarako eta osasun laguntzarako aseguru bat eduki behar dute, eta, kasua bada, joan-etorrietan laguntza izateko beste bat, laguntzen deialdiko oinarrietan esaten denari jarraituz.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 28an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel Izu Belloso jaunak galdera egin du ikerketa bekei buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuak eta bere sozietate publikoek urtero deialdi batzuk egiten dituzte bekadunak kontratatzeke, funtsean I+G+B programak sustatzeko politikaren barruan.

Hala eta guztiz ere, eta departamentu horren eskumenak eta eginkizunak kontuan harturik, aipatzen den beken deialdiaren xedea da bekadunen artean teknikariak prestatzea, batez ere zentro teknologikoetan.

Aipatu deialdien xedea ez da, inolaz ere, ikerketa lanak garatzea; hori dela eta, ez da egokia egindako galderei erantzutea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 30ean

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, drogazaleei laguntza emateko elkarteekin dauden hitzarmenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak drogazaleei laguntza emateko elkarteekin dauden hitzarmenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko ekainaren 23ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko uztailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Askotariko parlamentu-taldeari atxikitako José Luis Etxegarai Andueza jaunak galdera egin du drogamenpekotasuna duten pertsonen laguntza ematen dieten elkarteekiko hitzarmenei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

1 eta 2.- Aurreko beste erantzun batean adierazi genuen bezala, ordainketetan izaniko atzerapena hitzarmen berriaren negoziaketak eragin du, uste baino gehiago luzatu baita. Halere, informatu genuen bezala, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen ebazpen batez, kontratuan ezohiko aldaketa egin eta kontratua maiatzaren 31n amaituko zela ezarri zen.

3.- Hitzarmen berria honezkero itxita dago, sinatzeko zain.

4.- Gaur egun, Osasun Departamentuak ez du orain arte egindakoa aldatzeko inongo planteamendurik egin.

5.- Antox elkartearekin sinaturiko hitzarmenean zerbitzua guztira 25 tokitarako ezartzen da gehienez ere.

Kopuruen aldetik, ezarritako helburuak honako toki hauek betetzea dira: arrunt deiturikoetatik 10 toki, eta bitariko deiturikoetatik beste 10 toki.

Laguntzaren beharrizanez horretara behartuko balute, bitariko 10 tokiak arrunt bihurtu ahalko lirarteke, gehienez ere 15 ezarri arte; hau da, bitariko toki bakoitzeko 1,5 toki arrunt.

Kontrako kasuan, laguntzaren beharrizanez horretara behartuko balute, 10 laguntza-toki arruntak bitariko bihurtu ahalko lirarteke, gehienez ere 7 ezarri arte; hau da, toki arrunt bakoitzeko 0,75 bitariko toki.

6.- Lehen ere jakinarazi genuen bezala, Osasun Departamentuak prozedura administratiboak arinduko ditu ordainketak lehenbailehen egin daitezen, beti kontrolaren eta legezkotasunaren printzipioak errespetatuz.

7.- Ibarre-Multzoa, Gizakia Helburu eta Antox elkarteekin sinaturiko hitzarmenak egun berean amaitu ziren guztiak. Hitzarmen berriak itxirik daude eta sinatzeko zain.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko uztailaren 14an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak Nafarroako Kutxaren eta beste entitate batzuen zenbat bilkuratan parte hartu duen jakitekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak Nafarroako Kutxaren eta beste entitate batzuen zenbat bilkuratan parte hartu duen jakiteko egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko ekainaren 7ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko uztailaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galde-

ra egin du Hezkuntza kontseilariak, dauzkan ordezkaritza karguak direla-eta, Nafarroako Kutxaren eta beste sozietate edo entitate batzuen bilkuratan parte hartzeagatik jasotzen dituen dietei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariaren erantzuna:

Hezkuntza kontseilari gisa ez du gaur egun ezain ordezkaritza-kargu betetzen Nafarroako Kutxan.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 27an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, suhiltzaileen parke zentral berri bat eraikitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak suhiltzaileen parke zentral berri bat eraikitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko maiatzaren 30eko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko uztailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du suhiltzaileen parke nagusi berria eraikitzeari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Cordovillan (Galar) suhiltzaileen parkea eta heliportua egin behar direla eta, kasuko udalez gaindiko proiektu sektoriala tramitatzen ari da, ordezkatzeko dudak departamentuak sustatuta.

Horrenbestez, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak ez du aurreikusi Cordovillan suhiltzaileen parkeko eraikuntza lanei ekitea harik eta alde aurretiko tramitazio administratiboa bukatu arte; une horretan, behar den plangintza eginen da beharizan eta lehentasun orokorren arabera, eta Nafarroako aurrekontu orokorren dagokion proiektuan sartuko da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko uztailaren 6an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, Nazioarteko futbol partida batek eragindako gastuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Nazioarteko futbol partida batek eragindako gastuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko ekainaren 13ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko uztailaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako futbol selekzioak jokaturako partidari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernu-ko Toki Administrazio-ko kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Gobernu-ko eledun den aldetik.

Aurreko beste parlamentu-erantzun batzuetan jakinarazi dugun bezala, Nafarroako Gobernuaren ekarpen ekonomikoa Iruñeko Sadarren, 2004ko abenduaren 28an, Nafarroako eta Marokoko selekzioek jokaturako futbol partida horretarako 165.000 eurokoa izan zen.

2004ko azaroaren 17an, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Kutxa Fundazioak "Nafarroako futbol selekzioak nazioarteko futbol partida bat jokatzeko lankidetzeta hitzarmena" izenpetu zuten. Bosgarren klausulan, hitzarmenak honakoa ezartzen du: "Nafarroako Kutxa Fundazioak konpromisoa hartzen du ekitaldirako behar diren kontratazioak eta haren zuzendaritza kudeatzeko, betiere Nafarroako Futbol Federazioaren laguntza teknikoarekin, bai eta hartatik ondorioztatzen diren gastuak finantzatzeko ere, Nafarroako Gobernuaren edo, kasua bada, Nafarroako Futbol Federazioaren ekarpenak haiek betetzen ez dituen zatian".

Hona fakturen azalpena:

Kontzeptua	Jaulkitzailea	€
Nafarroako selekzioaren elastikoak	Puma Estudio 2000 S.A.	61.248,00
Marokoko selekzioaren joan-etorriak	Artieda/ Ativar S.L. autobusak	1.042,18
Marokoko selekzioaren hegaldiak eta hotela	Navarsol bidaiak	39.164,43
Marokoko eta Nafarroako selekzioen bazkariak eta afariak	NH Iruña Park hotela	1.833,98
NFFaren kirol jantziak	Nafarroako Futbol Federazioa	15.000,00
Sadarrerako hesiak alokatu garraiatu muntatu eta desmuntatzea	Eventos Zunzarren, S.L.	174,00
Sadar futbol zelaiko zerbitzuak	C.A. Osasuna	27.260
Osasun estaldura	Espainiako Gurutze Gorria	129,00
Aseguruak	SVRNE Accidentes	9.180,44
Segurtasuna	Serramar, S.L.	8.532,96
Publizitatea	Europa FM	928,00
Sadarreko publizitate finkoa	Editora Independiente de Medios de Navarra S.A.	6.960,00
Iragarki, kartel sarreren eta abarren sormen lanak	In & Out Comunicaciones y eventos	1.392,00
Argazki saioak	In & Out Comunicaciones y eventos	696,00
Jatorrizkoak diseinatu, irudiak tratatu, prentsaurrekoetarako plotterak egin, banaketarako azafatak	In & Out Comunicaciones y eventos	2.837,36
Publizitatea	Diario de Navarra	29.910,60
Publizitatea	Eureka !	904,80
Publizitatea	Diario de Noticias	10.057,20
Publizitatea	La Estafeta de Navarra	3.527,56
Publizitatea	Vivir Pamplona	2.088,00
Publizitatea	C.A. Osasunaren aldizkaria	371,20
Irratirako iragarki laburra gaztelaniaz	In & Out Comunicaciones y eventos	232,00
Publizitatea	Radio Pamplona (SER)	1.990,56

Kontzeptua	Jaulkitzailea	€
Publizitatea	Radio Navarra (COPE)	2.345,18
Publizitatea	Onda Cero	3.049,40
Publizitatea	Cadena 40	1.930,24
Publizitatea	Cadena 100	2.345,24
Publizitatea	NET 21 Radio	232,00
Publizitatea	Track FM	400,20
1.700 kartel inprimatzea gaztelaniaz	In & Out Comunicaciones y eventos	496,05
Kartelak itsasteko bi txanda	In & Out Comunicaciones y eventos	524,43
Gonbidapenentarako 150 txartel handi inprimatzea	In & Out Comunicaciones y eventos	384,08
Sarrerak inprimatzea	In & Out Comunicaciones y eventos	665,49
Gonbidapenak inprimatzea	In & Out Comunicaciones y eventos	446,62
300 kartel inprimatzea arabieraz	In & Out Comunicaciones y eventos	359,28
Irratirako iragarki laburra arabieraz	In & Out Comunicaciones y eventos	232,00
Publizitatea	Ribera Navarra	197,20
Publizitatea	La Voz de la Ribera	394,40
Publizitatea	Plaza Nueva	464,00
Publizitatea	Diario de Noticias. Erriberako edizioa	974,40
Publizitatea	Diario de Navarra. Erriberako edizioa	1.052,7
Publizitatea	Onda Cero Tudela	455,53
Publizitatea	COPE Tudela	696,00
Publizitatea	SER Tudela	584,64
Erriberan kartelak itsastea	In & Out Comunicaciones y eventos	524,43
Telebistarako 20 segundoko spota egitea	In & Out Comunicaciones y eventos	1.972,00
Publizitatea	TVE	5.281,44
Publizitatea	Antena 3	3.596,00
Publizitatea	Canal 6	2.996,28
Publizitatea	Canal 4	1.021,96
Publizitatea	Popular TV	696,00
Komunikazio jaduereen estrategia, kudeaketak eta koordinazioa	In & Out Comunicaciones y eventos	3.480,00

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2005eko uztailean

Toki Administrazioiko kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, burutzak betetzeko jarduketa planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak burutzak betetzeko jarduketa planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko ekainaren 13ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abuztuaren 31n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du burutzak betetzeko jarduketa planaren betetzeari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

1.- Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren 2003ko maiatzaren 6ko ebazpenaz eginiko deialdiari dagokionez, 43 burutza bete dira, 20 bete gabe geratu dira, 15 kendu dira, egitura organikoaren aldaketen ondorioz, eta 8 ebazteko geratu dira.

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren 2004ko abuztuaren 16ko ebazpenaz eginiko deialdiari dagokionez, 5 burutza bete dira, 26 bete gabe geratu dira, 2 kendu dira, egitura organikoaren aldaketen ondorioz, eta 71 ebazteko geratu dira.

2.- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari buruz, berriz, hona maiatzaren 15eko 928/2003 Ebazpenaz eginiko deialdiaren ondoriozko datuak: 26 burutza bete dira, 11 bete gabe geratu dira eta 1 kendu egin da, egitura organikoaren aldaketen ondorioz.

Bestalde, irailaren 21eko 1502/2004 Ebazpenaz onetsitako deialdiari dagokionez, 13 burutza bete gabe geratu dira eta gainerako 23ak tramitatzeko ari dira.

3.- 2002ko abuztuaren 31n, Nafarroako Gobernuaren 2002ko irailaren 16ko erabakiak berak dienez –haren bidez, burutzak betetzeko jarduketa plana onetsi zen–, 940 ziren foru erkidegoko

administrazioko eta haren erakunde autonomoetako (Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua barne) plantilla organikoan zeuden burutzak.

Gaur egun, horietatik 109 daude merezimenduen bitartez beteta; 101 bete gabe daude; gainerako guztiak behin-behineko izendapenez daude beteta.

4.- 2005eko deialdiez bete beharreko burutzen baldintzak eta mailakatze sistema ezarriko zituen foru dekretua onesteari dagokionez, esan beharra dago Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea onetsi izanak trabak jarri dituela ekitaldi honetan burutzak betetzeko prozesua aurrera eramateko.

Izan ere, lege hura onetsi ondoren, foru erkidegoko administrazioaren oinarrizko egitura onetsi behar da, eta administrazioa osatzen duten departamentuak ere egitura organiko horri egokitu behar zaizkio; inguruabar horiek direla eta, unitate organiko batzuk aldatu edo kenduko zirela aurreikusi baitzen, gure ustez ez zen egokia deialdiak egiteko prozesuari hasiera ematea hasiera batean ezarritako datetan.

Edozein modutan era, adierazi beharra dago ezen, behin aipaturiko egokitze prozesua bukatuta, 2005eko foru dekretua une honetan lantzeko tramitean dagoela, eta hemendik gutxira onestea aurreikusi dela.

Aurreko puntuan adierazitako inguruabarren ondorioz 2005ean sortutako atzerapena alde batera utzita, Nafarroako Gobernuak aurreikusita dauka burutzak merezimendu lehiaketan bitartez betetzeko prozesuarekin jarraitzea, 2002ko irailaren 16an onetsitako jarduketa planean jasotakoari jarraituz; horretarako, 2006ko foru dekretua ekitaldi horretako lehen hilean onestea aurreikusita dago.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abuztuaren 30ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, lurzoruak kokatzeko lehentasunei buruzko agiriak prestatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak lurzoruak kokatzeko lehentasunei buruzko agiriak prestatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko ekainaren 23ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko irailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du lurzoruak kokatzeko lehentasunen gaineko agiriak prestatzeari buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1. Lurzoruak eskuratzeko lehentasunak deialdiko baldintzen pleguko 2. klausulan ageri direnak dira; horren kopia erantsi dut espedientearen zatia den aldetik.

2. eta 3.- Galderetan aipatzen direnak kontseilariaren 2005eko ekainaren 8ko agerraldian azaldu ziren.

4. eta 5.- Espedientearen kopia erantsi dugu. Deialdia 2005eko uztailaren 25eko 88. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 5ean

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

(Oharra: aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Galdera, Funesen planta bat ezartzeari eta Falcestik Funesera doan hustubidearen trazadurari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak Funesen planta bat ezartzeari eta Falcestik Funesera doan hustubidearen trazadurari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko ekainaren 20ko 65. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko irailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak galdera egin du Funesen planta bat ezartzeari eta Falcestik Funesera doan hustubidearen trazadurari buruz. Hona Toki Administrazio kontseilariaren erantzuna.

1.- Zenbat trazadura-aukera hartu ditu kontuan NILSAk? Zehaztu bultzatze bidezkoak, grabitatezkoak edo mistoak diren.

Arga eta Aragoi ibaien beheko tarteetan dauden herrietako (Falces, Azkoién, Funes, Marcilla eta Caparrosa) hondakin-uren tratamendurako azterlana hastean, ikusi zen beharrezkoa zela araztegi bateratua jartzea herri horietarako guztietarako.

Plantaren kokapena eremuaren topografia eta isurketa-guneak kontuan hartuta erabaki zen. Azkenean, araztegia Funesen kokatu zen, "Soto Sardilla" izeneko lurretan.

Hondakin-hodien trazadurarako alternatiba ezberdinak aztertu ziren. Zehazki, Falces-Funes hustubiderako honakoak izan ziren:

A- Falces-Funes ponpaketa bidez (bulkatzea).

B- Falces-Azkoién ponpaketa bidez eta Azkoién-Marcillako hondakin-hodia grabitate bidez (mistoa).

B- Falces-Azkoién ponpaketa bidez eta Azkoién-Funes grabitate bidez (mistoa).

2.- Zer trazadura aukeratu da proiektuari jarraituz? Zergatik egin da hautapen hori?

Aipatu alternatiben artean, A-ren alde egin da, egokiena zelakoan.

3.- Azkoiengo eskualdeko ukitutakoak trazadura proposamen bat egin zuten, zergatik ez da kontuan hartu?

Ukitutako jabeen proposamena, aztertu ondoren, alde batera utzi zen, %⁹-ko 1 baino malda txikiagoa zeukalako, hau da, malda txikiagia zeukalako.

4.- Zeintzuk dira dauden proposamenen alde onak eta txarrak?

Falcestik Funeserainoko bulkatze bidezko hondakin-hodiaren trazadura (A aukera) ekonomikoki hobea da C aukerarekin alderatuta, eta kalte gutxiago egiten du landa lurretan, zeren eta trazadura ez baitago topografiak baldintzatua; ibaiertzetik hurbil dauden lurretan egin daiteke, gainera.

B alternatiba ez da bideragarria, topografiak ez baitu biderik ematen Azkoiéndik (Arga ibaiaren ezkerreko aldean) Marcillako hondakin-hodirako grabitate bidezko trazadura gauzatzeko.

5.- NILSAren proiektuan agertzen den hustubideak ba al du ahalmen nahiko Azkoiengo egungo eta etorkizuneko industrialdeko isuriak hartzeko?

Bultzatuko den proiektuak bere baitan hartzen du Falcesko isurketak araztegiraino garraiatzea. Herriko saneamendu sareen bitartez emanen zaie konponbidea industrialdeko isurketei.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2005eko abuztuan

Toki Administrazio kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eleduna: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren kabineteko buruak Kubara eginiko bidaiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren kabineteko buruak Kubara eginiko bidaiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 19ko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak galdera egin du Gizarte Ongizate Kirol eta Gazteria kontseilariaren kabineteko buruak Kubara eginiko bidaiari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna.

Galdegileak bere idazkian dio "Gizarte Ongizateko kontseilariaren kabineteko buruak Kubara eginiko bidaia baten berri" izan duela. Berri izate hori, iruditzen zait, José Luis Alli Fernándezek Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeko irailaren 7ko agerraldian deklaraturakoarengatik izanen dela; izan ere, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Zerbitzuaren proiektuak gainbegiratzeari buruz ari zela, arlo horretan sartu zituen gobernuo kideek eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko langileek eginiko bidaia batzuk, horrekin zerikusirik ez zuten arren. Aipatu zituen bidaietako bat galdegileak aipatzen duena da.

Aldez aurretiko informazio gisa, eta kabineteburuak esandakoaren arabera, jakinarazi behar dizut bidaia hori 2003ko urrian egin zela, orduko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilari Berruezo andreak berariaz esanda. Bidaiaren arrazoia izan zen orduko kontseilariak gonbidapen bat jaso zuela Kubako Santiagoko Universidad de

Oriente izenekoetik eta Economistas Sin Fronteras elkartetik antolatutako mintegi batean parte hartzeko, eta kontseilaria bera izan zen pentsatu zuena kabineteburu izanen zela mintegian parte hartzeko pertsona egokiena.

1.- Zein izan zen bidaia horren xedea? Proiektuen ikuskapena egiteko baldin bazen, azaldu zein diren proiektu horiek.

Esan bezala, bidaiaren helburua izan zen Kubako Santiagoko Universidad de Oriente izenekoak antolaturiko mintegi batean parte hartzea, eta honako ponentzia agertu zuen: "Nafarroako Garapenerako Laguntza: Ierro estrategikoak". Horren truke ez zuen inongo ordainsaririk hartu. Jakin dezazun, diplomaren kopia eransten dizut, 2003ko urriaren 16koa, Universidad de Orienteko errektoreak eta Economistas Sin Fronteras elkarteko lehendakariak sinatua. Bertan egiaztatzen da mintegian parte hartu izana eta aurkezturiko ponentzia eskertzeko hitzak agertzen dira.

Esan behar dizut ez Economistas Sin Fronteras elkarteak, ez Kubako Santiagoko Universidad de Oriente unibertsitateak ez zutela Nafarroako Gobernuaren inolako dirulaguntzarik hartu.

2.- Noiz egin zen bidaia?

2003ko urriaren 13tik 18ra; izan ere, arestian aipatu dudan mintegia urte hartako urriaren 15ean eta 16an egin zen.

3.- Zenbateko kostua izan zuen? Zer kontusailen kontura egin zen?

Nafarroako Gobernuak 0 euro ordaindu zituen, zeren eta Universidad de Oriente unibertsitateak eta Economistas Sin Fronteras elkarteak beren gain hartu baitzituzten gastu guztiak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 14an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Humanismo y Democracia Fundazioari diruz lagundutako proiektuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak Humanismo y Democracia Fundazioari diruz lagundutako proiektuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko abuztuaren 26ko 83. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M^a Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du Humanismo y Democracia Fundazioari diruz lagundutako proiektuei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein proiektu mota finantzatzeko dira dirulaguntza horien bitartez?

Garapenerako lankidetzarako dirulaguntzen helburua da garapen bidean dauden herrialdeetan pobrezia aurka borrokatzea; hau da, elikagaien segurtasuna, hezkuntza, osasuna, enplegua, nekazaritza produktzioa eta abar areagotzera bideratutako proiektuak. Horretarako, dirulaguntza mota ezberdinak daude: alde batetik, mikroakzio deitzen direnak daude, azpiegitura txikiak, ekipoko ondasunetarako inbertsioak, txerto kanpainak, alfabetatze kanpainak eta abar egitera bideratuak; bestetik, tamaina handiagoa izan eta arlo horretan eragin handiagoa duten proiektuak laguntzen dira (esate baterako, osasun etxea, ikastetxeak, nekazaritzarako granjak eta mikroenpresak); halaber, larrialdi nazionalako eta nazioarteko larrialdiko proiektuak laguntzen dira, hondamendi naturalen edo giza gatazken ondorioz gertatuak; azkenik, lankidetzarako dirulaguntzen bitartez, iritzi publikoaren eta, oro har, gizartearen heziketa eta gai hauekiko sentsibilizazioa sustatzen dira.

2.- Nafarroako Gobernuak ba al du hitzarmenik fundazio horrekin? Hala baldin bada, horien kopia jaso nahi dut.

Dirulaguntzetarako deialdien testuinguruan, Humanismo y Democracia Fundazioarekin hitzar-

menak sinatu dira ondoko espedienteetarako dirulaguntzak emateko:

– 145/1997 espediente, Amparen (Brasil) "sustapen sozialerako eta lanbide heziketarako zentro bat eraikitzea."

– 120/1998 espediente, "Barahonako ospitala eraikitzea eta ekipatzea (dermatologiako unitatea), Errepublika Dominikarrean.

– 267/2002 espediente, "Profesionalak osasun tekniken, ospitaleen gerentziaren eta garapen iraunkorraren arloetan prestatzeko programa", Errepublika Dominikarrean.

– 202/2003 espediente, "Osasunaren profesionalentzako laguntza teknikoa eta prestakuntza", Bolivian.

– 203/2003 espediente, "Ospitaleen kudeaketarako sistemak hobetzea, ospitale sistemaren erreformaren baitan, Errepublika Dominikarrean.

Lehenbiziko bien kopia erantsi dugu; gainerakoak lehenago igorri nituen, Humanismo y Democracia Fundazioarentzako dirulaguntzei buruz eskatutako informazio bati erantzuteko.

Gainera, lankidetzarako esparru hitzarmen bat sinatu zen Nafarroako Gobernuaren eta Humanismo y Democracia Fundazioaren artean Irakeko Errepublikarako nazioarteko lankidetzaren arloan. Horren kopia erantsi dugu. Hitzarmen horretatik ez da inolako dirulaguntzarik eratorri.

3.- Zein da dirulaguntza horiek emateko prozedura?

Bi prozedura daude garapenerako lankidetzaren arloko dirulaguntzak emateko: bata, arrunta, foru aginduz onetsitako urteko deialdiaren bitartez; bertan, garapenerako proiektuak, urtekoak eta urte anitzekoak, mikroakzioak eta sentsibilizazio proiektuak sartzen dira; bestea, apartekoa, nazioko nahiz nazioarteko larrialdi kasuetarako. Bi prozedurak Dirulaguntzei buruzko 8/1997 Foru Legean eta Garapenerako lankidetzari buruzko 5/2001 Foru Legean babestuta daude.

Prozedura arruntari dagokionez, dirulaguntzetarako deialdiak egin aurretik Nafarroako Garapenerako Laguntzen Kontseiluak txostena ematen du. Halaber, kontseilu horri, aurretik, deialdiak ebazteko proposamenaren berri ematen zaio; izan

ere, kontseilua da garapenerako laguntzan esku hartzen duten eragileek parte hartzeko organoa.

Behin deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta eskabideak aurkezteko epea iraganik, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Zerbitzuak aurkezturiko eskabide guztien dokumentazioa berrikusten du, egiaztatzeko guztiek betetzen dituztela hartan eskaturiko baldintzak. Gero, agiriren bat falta bada, eskabideak aurkezturiko entitateei eskatzen zaie hura zuzen dezaten edo bestelako akatsak ere konpon ditzaten.

Behin hori egin denean, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Zerbitzuak eskabide guztiak baloratuko ditu, deialdi bakoitzean adierazitako irizpideen arabera; une horretatik aurrera, proposamen bat aurkezten zaio Gizarte Ongizateko zuzendari nagusiari, dagokion txostenarekin batera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontuhartzaile delegatuak adostasuna adierazi ondoren, zuzendari nagusiak behar den ebazpena sina dezan.

Hala eta guztiz ere, proposamenak urte anitzeko finantzaketa bat eskatzen duenean, bestelako prozedura bati jarraitzen zaio, zeren eta ez baita bukatzen zuzendari nagusiaren ebazpenarekin; izan ere, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Zerbitzuak proposaturik, Gizarte Ongizateko zuzendari nagusiak ontzat eman ondoren, Nafarroako Gobernuari igortzen zaio, erabaki baten bidez gastua baimendu eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariari baimena eman diezaion departamentuaren eta dirulaguntza jasotzen duen entitatearen arteko lankidetzaren hitzarmen bat sinatzeko; hitzarmen horrek arautuko du diruz lagundutako proiektuaren betetzea gauzatzeko modua.

Nazioko eta nazioarteko larrialdietarako laguntza eskabideen tramitazioari dagokionez, behin laguntzaren beharra eragin zuen hondamendia gertaturik, edo ofizioz (era horretako esku-hartze humanitarioetan aditua den GGKE bat aurkituz edo une horretan Nafarroako Gobernuaren funtsen hondamendia gertatu den lekuan lan egiten ari den GGKE bat aurkituz eta haiei laguntza bideratzeko aukera eskainiz), edo alde batek eskaturik (halakoetan, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Zerbitzuak egokitasuna baloratuko du, eta, baiezkotan, proposamena aurkeztuko dio zuzendari nagusiari sinatzeko, kontu-hartzailera delegatuaren adostasunarekin eta aldeko txosten juridikoa dagoela) dirulaguntza emateko ebazpena ematen da.

4.- Zein irizpide erabiltzen dira proiektu jakin batzuei dirulaguntza emateko?

Proiektu guztietarako erabilitako irizpideak, larrialdietarako laguntzen kasuan izan ezik, urteko deialdietako oinarrietan jasota daude eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira, interesdunek deialdi horretarako ekintzaren bat aurkeztu nahi badute, irizpideak ezagut ditzaten.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 15ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

(Oharra: aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

